

txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2003 Ekaina • 26. zenbakia



Iban Rodriguez
Unai Etxabe
Beñat Vicente
Lur Esteban

Lehen urtean izei ttikiaz
 azken urtean bezala.
 Gero sorginak bihurtu ginen
 zuek izutuaz hala.
 Eta ondoren arrantzaleak
 bilduz kostako kresala.
 Hurrengo urtean kokorikoez
 alaitu genuen gala.
 Zanpantzar ere izan gara
 danbo dinbili danbala.
 Amona zaharren zimurrez bete
 zen hain gazte zen azala.
 Gero hezurretan geratu ginen
 argalduaz berehala.
 Guztiak jakin nahi dituenak
 entzuten jarrai dezala.



Harriketarrak ere izan gara
 bidaia tuaz atzera
 Drag Queen-ak ere plataformekin
 modan dagoen antzera
 Beste batean zaku zaharrekin
 irten ginen dantzatzera
 geron Travolta eta Olivia
 ekarri zuen artera
 Eta Zuberoko maskarada bat
 jin Gipuzkoa aldera
 Azken urtean ipuinetatik
 zenbait pertsonai irten da
 Gaur behartuta sentitzen gara
 mila esker esatera:
 Gaur egun zerbait baldin bagara
 zuengatikan baikera.



DBH 4.

AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	11
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	19
GU ERE KAZETARI	23
NAHASTE BORRASTE.....	27



IKASTOLA EGUNA OSPATU genuen



Ekainaren 8an **IKASTOLA EGUNA** ospatu genuen sekulako egitaraua osatuz. Egitaraua ikastolako guraso, ikasle eta langileak prestatu zuten elkar lanean herritar guztientzat, euskaldun eta euskaltzale ororentzat, benetan festa erakargarria izan zen..

Ginkana, Ekintza estraeskolarrerako taldeen emanaldia oparoa, DBH 4.mailako ikasleen agurra, Haurtzaro Bertso Eskolari omenaldia... Hau dena goizean izan genuen

Arratsaldean: Ikasle ttikientzat tailerrak, gaztelu puzgarriak, animazio taldeak, argazki erakusketak, ikasleen bideo eta arte lanen erakusketa... Eta nola ez, musika eta taberna guztientzat. Laburbilduz, giro lasaia eta atsegina izan genuen.

DBHko ikasleak Interneten

Azkenean, justu-justuan, baina DBHko 2. zikloko hainbat ikasleren lan batzuk zintzilikatzerik izan dugu helbide honetan:

haurtzarokoikasleak.galeon.com

Bisita ezazue!





I R T E E R A K

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
H.H. ZIKLOA IRTEERAK			
HH I	Apirilak 30	Zumaira	Zuloagaren obra ezagutu eta garraio mota ezberdinak probatu
HH I	Maiatzak 12	Elizaldera	Kale inguruak dituen ezaugarriak behatu
HH I	Maiatzak 27	Iturriotzera	Baratzak eta negutegia behatu
HH I	Ekaina	?	Ikasturteari bukaera emanez egun pasa
H.H 3	Maiatzak 14	Ergoinera	Tomateen negutegia ikustea
H.H 3	Maiatzak 15	Errenderira	Azokan, barazkien eta landareen salmenta ikustea
L.H. 1. ZIKLOA IRTEERAK			
I.MAILA	Ekainak 16	Pagoetara	Naturgunea ezagutzera
I.MAILA	Ekainak 9-10-11	Beizamara	Elkarren arteko bizipenez gozatzea
L.H. 2. ZIKLOA IRTEERAK			
3.MAILA	Maiatzak 15	Munaundira	Baserritarren eguna ospatzea, landaretza lantzea
3.MAILA	Ekainak 12	Arizmendira	Landaretza lantzea
3.MAILA	Ekainean	Lorategira	Landaretza lantzea



3. maila Munaundin



MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH. 3. ZIKLOA IRTEERAK			
5. maila	Ekainaren	Miarritzera (lapurdi) 11-12 eta 13	Beste euskalki bat entzun. Iparraldea ezagutu. Bertako ikastolakoekin harremandu
6. maila	Maiatzaren 7a	Etxeberriko behi biltegira, Altsasuko Gozogile eskolara eta Urnietako Iparlat fabrikara	Lanbideak eta lan sektoreak
6. maila	Ekainaren 3a	San Markos eta Urnietara	Zaborren trataera eta birziklaketa
6. maila	Ekainaren 11-12 eta 13a	Etzarri Larraunera (Nafarroa)	Ingurugiroa. Gure harremanak
D.B.H. 1. ZIKLOA IRTEERAK			
DBH 2	Apirilak 11	Ernio	Espeleologia ezagutzen hasi. Orientazioa naturan
DBH 1-2	Martxoak 27	Errearteria	Antzerkia, euskaraz.
DBH 1	Maiatzak 29-31	Lezo-Lazkao	Herri kirolak landu
DBH 1-2	Martxoak 28	Errearteria	Zinema: etika
DBH 2	Apirilak 1	Errearteria	Kultur topaketak
DBH 1-2	Maiatzak 9	Donostia: Axular ikastola	Gipuzkoako bertsolari txapelketa.
DBH 1-2	Apirilaren 10	Haurtzaro ikastola	Lexoti txapelketa
DBH 1	Maiatzak 23	Haurtzaro ikastola	Andoni Egañaren bisita
DBH 2	Maiatzaren 19	Haurtzaro ikastola	Drogomenpekotasuna: Txus Kongil eta Leire Zumeta.
DBH 1	ekaina 17-19	Barria	Ikasturte bukaerako ibilaldia
DBH 2	Ekaina 17-19	Espejo	Ikasturte bukaerako ibilaldia
D.B.H. 2. ZIKLOA IRTEERAK			
DBH 4	Martxoak 27	Errearteria	Herri kirol topaketa
DBH 4	Apirilak 4	Donostia	Herri kirol topaketa
DBH 3	Maiatzak 5	Ikastola	Drogomenpekotasun programaren hitzaldia
DBH 4	Maiatzak 12	Errearteriara - Oiartzo	Batxilergoko ikastola ezagutzera
DBH 3-4	Maiatzak 22	Donostiara	Ingelesezt antzerkia ikustera
DBH 4	Ekainak 9-13	Coma-ruga (Tarragona)	Kurtso bukaerako ibilaldia
DBH 3	Ekainak 11-13	Gorliz (Bizkaia)	Kurtso bukaerako ibilaldia



IBILALDIAK ONDO, BAINA EGUN PASAK ASKOZ HOBETO !




Ijadanik bi egun pasa egin ditugu eta bietan suerte gaitza izan dugu eguraldiarekin.

Lehenengo karrikara joan ginen eta Oiantzabal baserrian dauden abereak ikusi genituen. bertako behorrak belarriak atzeratzen ditue-nean beldurtuta dagoela adierazten omen du. erne beraz, koska egiten du eta!

Um! eta zein goxoak zeuden gero jan genituen ogitartekoak! etxean prestatutakoak baitziren...

Beste egun batean Zumaiara ere joan ginen. Zein ondo pasa genuen txalupan eta Zuloagaren artelanak ikusten !

Eta laster.... Guadalupera joango omen gara. hurrengo batean kontatuko dizuegu.



HH I



Udaberri gaia ohikoa da, baina aurten ez gara paperezko loreak egitearekin konformatu eta ikastolako lorontziak benetako lorez bete ditugu. horretarako lorezain baten laguntza izan dugu. berak erakutsi digu nola zaindu behar diren eta guk oso ondo pasa dugu berari laguntzen, nahiz gure eskuak zikin xamar geratu.

Mila esker Ramon eta Ane!!

UDABERRIKO LOREAK



HH 2

IKASTURTE BUKAERA
GERTU DAGO ETA ORAIN
ARTE LAN ASKO EGIN
BADUGU ERE,
LAGUNARTEAN ERE
PRIMERAN PASA DUGU,
IBILALDIETAN, PISZINAN,
PARKEAN...



ETA DATORREN URTEAN L.H.KO I.MAILAN EGONGO GARA,
ZENBAT HANDITZEN ARI GAREN..!

H-H 3KO IKASLEAK



Maiatzaren azken egunean J.M. Iturralde idazle ospetsua 6. mailakoekin solasaldi bat egitera etorri zitzaigun. Galdera franko egin genizkion baita berak erantzun ere. Baina, bere liburuez eta bizitzaz hitz egiteaz gain, gure imajinazioa zabaltzen lagundu zigun. Horretarako hainbat eta hainbat joko eta istorio proposatu zizkigun. Benetan, gehiagorako gogoz gelditu ginen!

6. maila

IPARRALDEKOEKIN HARREMANETAN

Gure hizkuntzaren aniztasuna ezagutzeko, baloratzeko, errespetatzeko... eta bide batez, harreman berriak egiteko helburuarekin, aurten, lehenengo aldiz, bosgarren mailako ikasleak Miarritzera joan dira hiru egun pasatzera.

Bertako ikasleekin eskutitzaren bidez harremanetan egon ondoren ekainean elkar ezagutzeko aukera izan dute. Miarritzeko ikastolako ikasleak Arritxulo aterpetxean bi egun igaro ondoren hirugarrena gurekin igaro zuten. Gure herria erakutsi eta lagun berriak egiteaz gain beste euskalki bat pittin bat ezagutzeko aukera izan zutelarik.

5. maila





DBH FILMS

DBH 4. mailako Bideogintza izeneko arloko ikasleek aurtan bi **labur** sortu dituzte; bata, "**Egun normal bat familia arraro batean**" eta "**School Killer 2**" bestea.



"Egun normal bat familia arraro batean"

Lehenengo honetan, egungo telekomedien antzera, familia baten gorabeherak aurkezten zaizkigu; hala nola senideen arteko harremanak, seme-alaben ikasketak, aitona familia duen eragina, etab.

16 minutuko iraupena duen film labur hau "sistema analogikoan" egin dago.

Ondoko irudian filmaren kartela.



School killer 2

Zazpi minutuko iraupena duen beste hau sistema digitalean egin dago; hau da, grabatutako irudiak ordenagailuarekin tratatu dituzte, ordenadorearen bidez editatu dute osorik.

Konputagailuaren bitarteko editatzea "Pinnacle Studio Version" programa erabiliz egin dute, bideo-digitalizazio prozesu honetan Haurtzaro Ikastolan aitzindariak izan dira aurtengo ikasleak.

Ondoko irudian filmaren kartela.

Honako filmak egin ez ezik, ikasturtean zehar, Haurtzaro Telebista-ren eskutik DBHko geletan "platoa" ere antolatu dugu.

Honen helburua egungo telebista kateetan ikusgai diren programak parodiatuz kamera baten aurrean eta atzean zer egin eta nola aritu behar den ezagutzea da.





EREIN TA GERO, UZTA BERO

IDAZLE GAZTEA

Galtzagorri Elkarteak Foru Aldundiarekin batera IDAZLE GAZTEA izeneko literatur lehiaketa antolatzen du Gipuzkoako 12-16 urte bitarteko gaztetxoentzat. Lanak bi kategoriatan sailkatzen dituzte: A kategoria, 12-14 urtekoentzat eta, B kategoria, berriz, 14-16 urtekoentzat.

Aurreko Txinparten aipatu genizuen eran, Galtzagorri Elkartearen web orrian sartzen zen edozein irakurlek eman zezakeen botoa. Bada, maiatzaren 17rako bagenekien zein ziren irabazleak eta ekainaren 6an, Foru Aldundira joan ginen sariak jasotzera. Sari hauek aipatzerakoan, gure ikastolakoak direnak emango ditugu ezagutzera.

Alde batetik, B kategorian, narrazioan, 2. saria, DBH 4. mailako Maddi Suarezek jaso du eta 3. saria DBH 4. mailako Iñigo Gartzia. Bestalde, B kategorian, poesian, 1. saria DBH 4. mailako Leire Jauregientzat izan da, 2. saria DBH 3. mailako Itsaso Carrizorentzat, eta 3. saria, enpatea egon denez, hiruk jaso dute, DBH 4. mailako Alaia Martinek, DBH 3. mailako Agurtzane Lekuonak eta Unai Barrenetxeak.

Bejondeizuela guztiei! Irribarrea eta urduritasuna elkarrekin genituela, ederki pasa genuen guztiok saria jasotzeko egunean.

Ikasle hauez gain, badira beste izen batzuk ere aipatu beharrekoak, azken muturreraino iritsi baitira: Irati Mujika, Naiara Lopez, Aintzane Ado, Olaia Susperregi eta Jon del Olmo. Zorionik beroena zuei ere. Hauek ere jaso zuten aipamena sari banaketa egunean.

Bukatzeko, esan nahi dugu aurreko ikasturtean emaitza onak eskuratu bagenituen, aurtengoa ere ez dela makalagoa izan. Gure gaztetxo hauek jendearen gustuko gauzak idazten asmatu dute, eta ez da gutxi. Ez, ez, ez da gutxi. Asko da.

URRUZUNO LEHIAKETA

Lehiaketa hau Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen lehiaketa da eta 14-18 urte bitartekoek parte har dezakete. Bi kategoriatan banatzen dituzte, A kategoria, 16-18 urtekoentzat, eta B kategoria, 14-16 urte-



koentzat. Hemen ere, aurrekoan bezalaxe, gure ikastolako ikasleen izenak aipatuko ditugu soilik: A kategorian, poesian, Oiartzoko Batxilergoko Miren Bera-mendi, eta B kategorian, DBH 4. mailako Ekiñe Aristizabal. Mirenek lehengo urtean ere jaso zuen saria, eta Ekiñek, aurtan, Euskaltzaindiak antolatutako Azkue saria jaso du. Beraz, saria jasotzeko garaian eskarmentua dutenak dira. Lehiaketa honen sari banaketa irailaren 8an izango da Miramar jauregian. Ahaztu gabe, uda pasa ondoren, txaloak joz eman beharko diogu hasiera ikasturteari. Ez da hasiera txarra. Zorionik beroenak zuei ere.

ESKOLARTEKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Bat-bateko bertso lanetan ere badugu nori begiratu Alaia Martin finalista geratu baita.



AITONA, IPUIN KONTALARI

Batzuetan, gure gurasoek batengatik edo besteagatik ezin dutenean, aiton-amonak izaten dira gu haur-eskolara eramateko edo bertatik jasotzeko ardura hartzen dutenak. Besteetan berriz, gure gurasoekin batera etorritzen dira zeregin horretan laguntzera. Horrela ari gara Karrikako haur-eskolara, poliki-poliki, batzuk eta besteak ezagutzen, esate baterako attona Inaxio, amona Arantxa, amona Edurne, amona Axun, aitona Gabriel eta amona Maite, amona Pili, amatxi Miren, aitite Mikel amona Pepi...



Horrelako egun bat izan zen attona Inaxio bere bilobatxoaren bila etorri eta, gu, artean siestatik esnatu berriak ginela, ipuin bat kontatu zigun lehena, eta hara non, guri gustatu!

Hori ikusirik bigarren ipuin bat ere kontatu zigun beste egun batean, eta gero hirugarrena, eta ondoren laugarrena.... la ohitura bilakatu zaigun arte. Gainera, mota guztietako ipuin eta istorioak kontatzen dizkigu; esne-saltzailearena, Pernando amezketarrarena... Orain dela gutxi lagun bat ere ekarri zigun, Gotzon, teniseko pilota batekin egina, eta orain, gure gozamenerako, bien artean kontatzen dizkigute istorioak.

Guk, gure partetik hitz xume hauen bidez siestatik esnatzea hain une goxo eta kuttuna bihurtzen digun attona Inaxio eskertu nahi genuke, eta baita gainontzeko aiton-amona, amatxi, aitite eta amoni guztiak ere!

KARRIKAKO HAUR-ESKOLAKO 1-2 TALDEA

Testua eta argazkia: Ainhoa Garaño

Una mujer tenía la intención de escribir un gran libro. Se compró un montón de papel, cincuenta lápices nuevos y un buen sacapuntas. A partir de hoy su marido y sus hijos sólo hablarían bajo y andarían de puntillas, pues la mujer quería empezar enseguida a escribir el libro.


Preparó el papel y afiló el lápiz. Mientras tanto pensaba en la primera frase.

Afiló otro lápiz y siguió pensando la primera frase.

Afiló el tercer lápiz y todavía pensaba la primera frase.

La mujer afiló hasta el final los cincuenta lápices y otros siete mil quinientos doce. No tardó ni tres semanas. Todavía no había escrito la primera frase, pero ya era campeona del mundo en afilar lápices. Salíó en el periódico.

Eta erosi zituen paper guztiak tolestatzen hasi zen eta moztu ondoren simetriak zirela konturatu zen. Eta musika jarri zuenean denak kalejiran hasi ziren.



3. maila



BEHIN BATEAN NESKAK ETA MUTILAK IKASTOLATIK AUTOBUSERA JOAN ZIREN ETA ZUMAIARA JOAN ZIREN. ZULOAGAREN ETXEAN KOADROAK IKUSI ZITUZTEN ETA GERO TXALUPAN IBILI ZIREN. GERO ITSASONTZIAK NOLA KONPONTZEN ZITUZTEN IKUSI ZUTEN ETA OGITARTEKOAK JAN ZITUZTEN. AZKENEAN ETXERA ETORRI ZIREN.

(3 URTEKOAK, IBILALDIAK EGINEZ: INGURUNEA LANDU ETA GIPUZKOA EZAGUTU)

HH I





IBILALDIAK EGINEZ: INGURUNEA LANDU ETA GIPUZKOA EZAGUTU

1. GETARIA

- Portuko bizimodua ikusi eta bizitu genuen. Arrantzaleek, ekarritako sardinak eskaini zizkiguten.
- Orion, Oria ibaia nola itsasoratzen den ikusi genuen.



2. UROLA IBAIA ETA AZPEITIA

- Loiolako Basilikaren edertasuna!!! Ederki esplikatatu ziguten bere historia.



3. OÑATI

- Herri zoragarria. Batzuentzat Oiartzun bezain polita edo politagoa.
- Hura Unibertsitatea!!! Nola egin ote zuten? A ze lana hartu zutena!!! Eta beste eraikuntzak eta monumentuak?
- Ondoren eta eguna amaitzeko Oñatitik Arantzazura joan ginen. A zer eguna!!!



4. DONOSTIA:

- Gure hiriburua ezagutzeko...
- Aquariumetik hasi eta Haize-Orrazera joan ginen, untzi museo ikusi eta euskal untzien historia ikasi genuen eta Miramonen, miniaturazko eraikuntzak ikusi genituen.

Horrelakoxea da laugarren maila!!!!!!



AZPEITIKO IBILALDIA

Lehendabizi ikastolan autobusa 9:00etan hartu genuen. 10:00etan Azpeitira iritsi ginen, zebra bide bat pasa eta tren museora joan ginen. Txartel batzuk eman zizkiguten eta tranbia batean ibili ginen. Gero tren museotik atera eta gosaria jan genuen. Gero ingurugiro etxeko parkean ibili ginen eta, ondoren, ingurugiro etxean birziklatzen eta soinuak bereizten ikasi genuen. Handik parke batera joan ginen eta bazkaldu egin genuen. Gero, San Inazio elizara joan ginen. 3:15ean atera ginen eta gero, 3:30ean autobusa hartu eta ikastolara 4:30ean iritsi ginen.

LH 2. mailakoek



TXERRI ELTZEITSUA

LEHENGAIK:


- | | |
|---|------------------|
| ➤ Plastikozko 5 edalontzi txiki | ➤ Labaina |
| ➤ Kortxozko tapoia (2 €ko txanpona baino handixeagoa) | ➤ Kola hautsetan |
| ➤ Zelo | ➤ Puxika bat |
| ➤ Egunkari papera | ➤ Kartoia |
| ➤ Ontzi handi bat | ➤ Arkatza |
| ➤ Akwarelak | ➤ Kuterra |

NOLA EGIN:

1. Puxika hartu, puztu nahi duzun tamaina arte eta lotu.
2. Hartu 5 edalontziak eta puxikari itsatsi: Lau hankak bezala eta gelditzen dena sudur bezala.
3. Ontzi bat urez bete eta kola hautsetan bota nahasteko. Ondo nahastu eta gero ordu laurden bat itxaron erabili arte, hobeto itsas dadin.
4. Egunkari papera tiretan moztu eta puxikarekin egin duzun irudia estali egunkari papera eta lehen egindako masarekin (kola-hutsa eta ura). Hori egindakoan lehortzen utzi eta, gogorra ez bada, pasa beste kapa bat egunkari papera eta masarekin.
5. Egunkari papera hartu, birak emanez biribildu, kizkurtu, masa eman gogortzeko eta txerritxoaren isatsa bezala erabiltzeko. Orain kartoia hartu, txerri belarri forma eman, egunkaria eta masarekin estali eta itsatsi belarri bezala, noski.
6. Den-dena gogortuta dagoenean, labaina hartu eta txerriaren gainean zirrikitu egin zure aurrezkiak sar daitezen.
7. Txerritxoaren behealdean kortxoaren tamaina hartu, markatu, kuterraz moztu eta lehen labaina sartzerakoan puxika lehertu ez bada, lehertu eta atera.
8. Akwarelak hartu, txerritxoa margotu (begiak, hankak,...) ahaztu gabe. Gero kortxoa "margotu" gabe sartu edo bere lekuan jarri.

Orain zure aurrezkiak sar ditzakezu!!

Oihana López Ávila



hautzaro

BERTSO ESKOLAK...



Gaur egun, Hautzaro ikastolako 30 neska-mutil dabilta bertso eskolan. Hogei urte hauek erakutsi dute ikastetxeetan egiten den lana funtsezkoa dela bertsolaritzaren mugimendua sendotzeko eta hedatzeko. Hautzaro ikastola eredu izan da horretan.

Zorionak guri! Agian, ez da hasteko modurik txukunena nork bere burua zoriontzea, baina hogeitaz urte ematen dute hainbesterako lizentzia. Hogeitaz urte bete ditu Hautzaro ikastolako Bertso Eskolak, eta ezin genuen utzi pasatzen deus gertatu ez balitz bezala. Abiatzea zaila izaten da, baina ez da samurragoa gertatzen urtetik urtera jarraipena ematea, taldeak biltzea, ilusioak piztea eta are aurrerago joateko indarra edukitzea. Hautzaro ikastolako Bertso Eskolak hori behintzat lortu du, eta hogeitaz urteren buruan, aurrera begira jarraitzen du.

Hautzaro Bertso Eskola noiz eta nola sortu zen ikusteko, egokia iruditu zaigu 2001. urteko Bertso Astea zela eta, Girizia Bertsolari Sailak argitaratzen duen liburuxkara jotzea, eta handik, Antton Kazabonek idatzitako artikulua hartzea. Artikulu hartan, Bertso Astearen 20. urtemuga oinarri hartuta, Hautzaro Ikastolan bertsolaritza lantzen nola hasi ziren kontatzen du Anttonek.



Karlos Aizpurua, Jagoba Larburu, Iñaki Pikabea, Eneko Apaolaza, Juan Mari Lopez (txapelarekin) eta Aitor Etxebeste. Haurtzaro Bertso Eskolatik irteneko lehen taldea osatzen zuten. Bertso Eskola abian jarri eta hurrengo urtean iritsi zen lehen txapela Oñartzuna, 1985ean. Geroztik, etorri dira beste bakanen batzuk.

...20

Haurtzaro Bertso Eskolarentzat txapelketak plaza handi izan dira. Txapelketaren finala, 1998. urtean.

HOGEI URTEREN BURUAN

1981ean jokatu zen Karmelo Baldan Eskolarteko lehenengo bertsolari gaztetxoaren txapelketa. Oier, gure bi urteko semearekin eusten nahiko lanak izan genituen, baina bertsolari gaztetxo haien bertsoei eta saiakerei ere arretarik jarri genien.

Guretzat esperientzia berria eta oso interesgarria izan zen. Burua bueltaka lanean jarri genuen, eta HAURTZARO ikastolan esperientzia hura nolabait txertatu behar genuela pentsatu nuen.

1981-82 ikasturtean neure kasa hasi nintzen zerbait lantzen ikastolan, eta Eskolarteko II. Txapelketara Haurtzaroko zazpi ikasle eraman genituen idaztera, eta Aitor Arbelaiz bat-bateko saiora. Aitor finaleraino heldu zen, Urte horretan herriko festetan ere kantatu zuten ikastolako bertsolariak.

Proiektuari forma eman nahi genion, baina pausoak pixkanaka eman genituen. Juan Mari Barrenetxea zen ikastolako zuzendari, eta beronekin luzaroan mintzatu ondoren, 1982-83 ikasturtean OHOk 8. mailan gai bezala lantzen hasi ginen bertsolaritza.

Urte horretan LEXOTI saria jarri genuen martxan. Harrigarria badirudi ere, 18 bertsolari aurkeztu ziren bat-bateko sari honetara. Aitor Arbelaiz izan zen txapeldun, bigarren Xabier Apaolaza, eta hirugarren Ixiar Elizondo. Lexoti

ere etorri zen sari banaketara, eta festa ederra izan zen. Urte berean III. Eskolartekora ere joan ginen, eta Ixiar Elizondo finalera heldu zen. Beraz, bazetorren Haurtzaroko bertsolari gaztetxoaren uholdea.

1984an BERTSO ESKOLA sortzen dugu. Han genituen Juan Mari Lopez, Iñaki Pikabea, Jagoba Larburu, Karlos Aizpurua, Aitor Etxebeste, Aitor Arbeilaiz, Axier Bergaretxe, Kerman Kortajarena, Andutz Labandibar...

1984an Bertso Eskola martxan jarri genuenean, ez genuen material askorik etxean. Kazkazuriren auspoako liburua, eta aitari kendutako batzuk. Beraz, material sortzen ere hasi beharra zegoen. Ikasleei egokitutako materiala. Doinuak, neurriak, errima zerrendak, historia, puntuak, amaierak, arrazoiak, ariketak...

Garai politak izan ziren haiek, 80ko hamarkada hartan ez ginen batetik bestera gelditzen. Auzoetako festak, herrikoak, ikastetxeetara irtenaldiak (Gipuzkoan eta Nafarroan), bertso paper lehiaketak, sariak, txapelketak, bertsolari gazteen jaialdiak...



0 urte

rentzat, gainerako guztientzat bezala, eskolarteko izan dira. Irudian, Gipuzkoako Eskolarteko 18. 98. urtean, Haurtzaroko taldea ere han zen.



Aldi hartan horiek ziren martxan zeuden bertso eskolak. Almen ikastolakoa, Hernanikoa, Zumaia, Oiartzungo Haurtzaro...


Suerte gaitza izan dugu Haurtzaro bertso eskolakoek ardura-dun eta irakasleekin. Gure ondoren Karlos Aizpuruak hartu zuen lekukoa, eta egia esan ez gaude damututa. 90eko hamarkadari Karlosek eman zion hasiera, eta azken urteotan, berriz, Arkaitz Goikoetxearen eskutan dago bertso eskola. Atzetik badatoz Esteban Martiarena-eta ere.

Bi hamarkada joan dira, mende zaharra ere bai, baina bertsoak bizirik dirau gure herrian. Beharbada oraintxe litzateke bazkari handi bat egiteko garaia, 20 urte hauen hausnarke-ta egiteko eta aurrerantzeko bidea markatzeko. Bi hamarkada honetan lanean edo kantari aritu direnak elkartzea, besterik gabe ere, ez litzateke txarra. Eta zer hausnartua ere seguru izango genukeela.

Zer iruditzen? On egin dagigula!



Lexoti jaialdia ospatzen dugu urtero Haurtzaro ikastolan. Aurten 21. aldia izan du, eta aurrekoetan bezala, Haurtzaro Bertso Eskolako ikasleek parte hartu dute. Aurten, 27 aritu dira kantuan.



Haurtzaro Bertso Eskolatik irtendako bertsolarietan, Ander Lizarraidek lortuko zuen, segur aski, balentriarik handiena: 1998. urtean, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa irabazi zuen, Mungian

■ ARRASTOAK

*Hogei urtek lotuta
kate baten gisan
oraindik bagabiltza,
lehen baikenbiltzan.
Nabiz eta ia dena
den gure bizitzan
urrats txiki bat baino
ez dadila izan!*

*Hogei urtean zehar
gurpilaren jira
ereindako lurrean
aurrera ari da.
Bidean bel liteke
oso urrutira
baina garrantzitsuen
arrastoak dira.*

*Amets bat gauzatzeak
barro jarri gaitu
bona belduagatik
ez da deus amaitu.
Hasiberrien gisaz
nabi dugu jarraitu
ametsak beti amets
izan behar baitu*

Haurtzaro Bertso Eskolatik pasatutako batzuk bertsotan ari dira oraindik. Beste batzuek, urte askotan ibili ondoren, utzita dute. Batzuk irakasle lanetan ari dira, gai jartzen, juradu lanetan, antolatzaile... Era batean edo bestean, gehienak murgildu dira bertsoaren itsaso zabalean. Eta garrantzitsuenak, orain 20 bat urte bueltaka hasi zen gurpilak oraindik ere aurrera jarraitzen duela. Ikastolan bertsolaritza DBHn lantzen jarraitzen dugu, eta LH 6. mailan ere osatu da bertso eskola. Aurten XXI. LEXOTI SARIA ospatu dugu. Arkaitz Goikoe-
txeak eta Esteban Martiarenak lanean jarraitzen dute Haurtzaroko Bertso Esko-
lan. Eskolarteko XXII. Txapelketan ere parte hartu dugu dugu..." (Antton Kaza-
bon, 2001eko Bertso Asteko liburuxkatik hartua).



Haurraren barruan zer gertatzen da?

Banakako behaketan oinarritutako pedagogia


Askotan esaten dugu haur-eskolan banakako arreta eskaini behar diegula haurrei. Esan bakarra ez, helburutzat hartzen dugu haur bakoitzari banaka erantzutea, bakoitzaren berezitasunak eta beharrak kontuan harturik.

Haur txikien kontuekin ari garenean premia hori oso agerian dago.

Baina, zer da haur bakoitzari erantzutea? Egin ahal daiteke? Haur honi bereziki kasu eginez gero, besteak zer?... Banan-banan egiten den lan horretan nola lortu hamabiko talde bati eskaini behar diogun arreta ez gutxitzea? Edo zortziko taldean? Edo...

Zein da gakoa? Zalantzarik gabe haurraren munduan gertatzen ari denari entzuten jartzea da, eta entzuten esaten denean, adi egotea esan nahi du, gure zentzumen guztiekin haurrarentzat egotea. Behatzaille izatea bai, baina behatzaile aktiboa izatea. Hau da abiapuntua. Egunean zehar etengabe sortzen zaizkigu laguntzeko arrazoiak, mila eratakoak, bereziak... Egoerak eta gertaerak ez dira denentzat berdinak eta aterabideak ere ez. Hona adibide batzuk:

- ▶ Ane aitari agurtu eta triste gelditu da. Besoetan hartu dut goxo-goxo eta jolasean sartu naiz berarekin, lasaituz: eskumuturretik txotxongilo txikia atera diot, bi keinu egin eta akabo bere pena. Orain txotxongiloa berari utziko diot jolas dadin.
- ▶ Gustura daude taldean jolasten, baina Juneke logale da; besteen jolasa eten gabe, koltxoneta ondoko logelari ipini eta lotan jarri dut, goxatzen dudari bitartean.
- ▶ Julen belarria ukitzen hasi da eta gauzak botatzen: aspertzen ari den seinale. Eta aspertu baino lehen, materiala jaso eta bestea aterako dugu: Kaxak eta txirlak. Hori bai gustatzen zaiola! Jada aldatu zaiola aurpegia!
- ▶ Garazi zuloak dituen kartoizko kaxa batekin dabil jostatzen. Zuloak bilatzen ditu eta handik pilota txikia botatzen du behin eta berrito, baina bere interesa galtzen ari da. Kaxako zuloak gero eta handiagoak ari dira egiten. Hausten ari zaiola jostailua, eta bere esperimendazio egarria agortu da. Hori ikusita erdian zuloa



duen aukia eskaini diot jolasarekin jarraitu nahi badu jarraitzeko. Eta baita jarraitu ere. Bere jolasa berrito bizkortu da, orain gainera aurkikuntza berriak eginez aukiararen garaiera dela eta.

- ▶ Garaziren pozarekin kutsatuta Izarrek ere Garaziren pilota nahi du eta pilota eskutik kentzera abiatu da. "Izar, itxoin, hemen badago beste pilota bat, tori, hau zuretzako" Orain biek jolastuko dira.
- ▶ Leirek begiratu egin nau ondokoari danborrarekin jo baino lehen: "Ez Leire, ez". Begirada hutsarekin berak ulertu du. Nik, berriz, bere jokabidea txalotzeko muxu handi bat ematen diot eta berak galdutako panpina txikia atera diot nire poltsatik. Pozik doa, norbait jo behar zuela ahaztu zaiola!

Haurrak ezagutu, nola dauden jakin eta zer nahi edo behar duten begiratzuz, errespetatuz eta maitatzuz, erraza da banakako heziketa egitea. Ez dugu beste munduko gauzarik egin (edo bai?)

Taldean bizi gara, baina bakoitzari dagokion erantzuna eman diogu. Haurrak horrekin fidatzen dira eta lasai eta pozik daude.

Banakako behaketan oinarritutako pedagogia diogu, bakarkako harreman hauek ez baitira mugatzen aldatzean bakoitzari egiten dizkiogun kilimeia.

KORO IZAGIRRE

I-2 taldeko irakasle-hezitzailea



Teknologia, urteroko arlo berria!

Lehen hezkuntzatik Bigarrenera iragatean, berrien artean Teknologia arloarekin topo egiten dute Haurtzaroko ikasleek. Jakin badakigu Teknologia arloak gela eta baliabide bereziak dituela, maiz ikusi izan baititugu frontoira begira dagoen gela horretara ikasleak joan-etorrian. Baina zer egiten dute bertan?



Txinpart: *Maddalen Usabiaga eta Josu Arotzena Haurtzaroko Teknologia irakasleengana hurbildu eta Teknologia arloa zer den azaltzeko eskatu diegu.*

Maddalen: Teknologia aplikaziorako arloa da guztien gainera. Fisika oinarri izanik gainontzeko arloetan bereganaturiko gaitasunak praktikan jar litzake ikasleak gurean. Euskara, Matematika, Informatika, Plastika, Natur eta Gizarte zientziak... arlo asko eta askotan ikasitakoak aplikaziorako leku topatzen du Teknologian.

Txinpart: *Eta tailerra?*

Josu: Ikasle gehienek gustuko dutena da, garrantzitsua, baina prozesu guztiaren atal bat besterik ez da.

Orain prozesu tekniko bat sorrarazten dugu unitate bakoitzean. Metodo baten bidez norberaren eta taldearen gaitasunak dantzan jartzen dira: arazo tekno-

logikoa **identifikatu** ondoren, kontsulta liburu, multimedia, objektuen analisi, etab. etara informazio bila jotzen dugu eta horrela arazoaren konponbidea argituiko digun ikerketa aldia bukatzen dugu. Ikerketa egiteko, gero eta baliagarriagoa gertatzen ari zaizkigu Internet eta simulazio programa informatikoak.

Hirugarren pausoa irtenbidea **diseinatzea** da, horretarako errepresentazio grafikorako teknikak ikertzen ditugu. Diseinua eta laugarren goa den planifikazioa dira proiektuaren emaitzaren urrats gakoak. **Planifikazioan**, materiala, tresnak, langileak, ardurak, denbora... dena antolatu behar da.

Diseinu eta planifikazio onak azkartu eta erraztu egiten du tailerrean landu beharrekoa, **erakuntza**, alegia. Tailerrean maila intuitibo soilean aritzeak, aurrikuspen gabe aritzeak, eraikuntza

konplexu bihurtzen du, proiektua zakartu, luzatu ohi da. Egindako lana gutxiesten da.

Azken pausoa proiektuaren **ebaluazioa** da.

Maddalen: Azken finean, Ugalde txoko industrialdeko edozein lan-tegik egiten duen bidea maila xumeagoan errepikatzen dugu. Horretarako ikasle batzuk diseinu arduretan aritzen dira, beste zenbait administrazio arduretan, beste batzuk tailerrean... taldeki-de bakoitzak ardura bat du eta proiektu bakoitzean arduraz aldatu behar du, helburua ikasle guztiek ardura guztiak probatzea da.

Txinpart: *Ebaluazioa aipatzen duzue, nola ebaluatzen da horrelako arlo bat?*

Josu: Proiektua eta prozesua ebaluatzen dira eta ikasleak ebaluazioan parte hartzen du. Ikasle bakoitzak gela barruko beste taldeek egindako proiektua ebalua-



tzen du. Lan talde bakoitzean berriz, bakoitzak norbera, taldekideak, proiektua eta hau egiteko prozesua baloratzen ditu. Irakasleak ebaluazio hauen emaitza guztiak bildu eta kalifikazioa jartzen du.

Txinpart: Nolakoak dira kalifikazio horiek?

Maddalen: Ordain guztiak bezala, lanaren araberrakoak izaten dira. Gainontzekoetan bezalaxe, Teknologia arloko notak garrantzia du ikaslearentzat. Hala ere, bada letra ala zenbaki soilean geratzen ez den ordaina; arazo bat gainditzeko gauza izan zarela ikusteak sentiarazten dizun poza, alegia. Hainbat arlotan zailtasunak dituzten ikasleak, gurean nola hazten diren eta autoestima nola indartzen duten maiz ikusi dugu; lanean errealitateak hurbilago ari direlako segur aski.

Txinpart: Arlo honetako irakasle izatea pisua gertatuko zaizue noski!

Josu: Pisuak baino gehiago neketuak izaten dira hainbat une. Eraikuntza garaian, adibidez, material eta tresna guztiak gainbegiratu behar ditugu saio bakoitzean; horrezaz gain, beharrak aurretik ikusi, garaiz eskuratu eta egoki antolatu behar ditugu, hainbat material eta operadore ziurtatu, alferrik ez gatzatzea eta ahal den guztia berriz erabiltzea bultzatu behar ditugu.

Talde lana eta talde bizitza gatazkatsua izaten da. Taldekide arteko keak jasotzea arrunta gertatzen da proiektua ondo ez doanean. Horrelakoetan, nerabeak arazoa besteengan ikusten du, ez du bere egiten. Eta helduok gatazka ekiditeko, saihesteko, desagerrarazteko tentazioa izan ohi dugu, gataz-



kari dagokion garrantzia baino gehiago emanez. Gatazkaren aurrean konponbidea aurkitzeak du garrantzia, horretarako talde osoa entzuteko, aztertze, elkar ulertzeko... tenorean jarri beharra dago eta irakasleak pazientzia erakutsi eta taldeari bere denbora eskaini behar dio. Nekea sorrarazten duen lana izan ohi da.

Txinpart: Arlo honetako proiekturik gustukoena?

Maddalen: Ikastolaren eguneko erakusketan egiturak, elektrizitatea, elektromagnetismoa, operadore ziklikoak, elektronika, energia alternatiboak, automatismoak... oinarri dituzten hamaika proiektu ikusteko aukera izaten da. Baina bada erakutsi ezin duguna, proiektu sinpleena ebatzeak ikasleengan sortzen duen poza; nor bere buruarekin gustura egotea. Eta gehienetan hau izaten dugu gustagarriena.

Josu: Irakasle moduan proiekturik gustukoena Teknologia arloaren eta gelaren eraiketa izan da, dudarik gabe. Erreforma ezarri arte Hautzarok ez du antzeko

arlorik izan. Hutsetik hasiak gara, baina ikastolaren ahalegina ez da hutsa izan. Azken urteotan formazioan, espazioaren egokitzapenean, baliabide, material eta erremintetan ikastolak egindako inbertsioek babestuta sumatu dugu arlo hau irakasten dugun irakasle biok egin behar izan dugun lan eta ordu mordoa.

Nahiz eta gela handixeagoa eta saio kopuru handiagoa gustura hartuko genituzkeen, hutsaren hutsetik abiatuta izateko, harro sentitzeko moduko gela dugu: ikastolako sarean konektaturiko bi ordenadore eta talde guztientzako gutxienezko operadore eta tresnak ziurtatuta ditugu. Aurten, Ostadar proiekturako testu liburuaren zirriborroa probatzen ari gara lehenengo mailan eta analisirako kit et simulaziorako softwarea eskuratzeko lanetan jarduteko asmoa dugu.

Teknologiako bi irakasleei eskerrak emanez, asmo eta proiektuetarako zorte ona opa ondoren, hurrena arte agurtu ditugu.



G A R R A S I A

AAAMAAAA...!!!, AITAAAA...!!!

Zein gurasok ez ditu hitz horiek milaka aldiz eta indar horrekin egunero entzun?

Begiak itxiko bagenitu haur batek oihu egiten duen bitartean, erraza litzaiguke bere jarrera asmatzea: lepoa tente, zain eta gihar guztiak lehertu beharrean; burua gora, kokotsa zerua ukitzeko asmoz; ahoa irekia, oso irekia eta gorputz osoa tentsioan.

Asmatu ezin duguna da horrelako garrasia ateratzeko nolako lana egin behar duten gure ahots kordek eta, orobat, gure eztarriak.

Ahotsa komunikazio tresna garrantzitsua dugu. Jaioberriek negarra eta, geroago, barrea erabiltzen dute beren beharrak adierazteko; ondoren jolasa, hitza eta ahots abestua datoz, beti ere familia giroan. Eskola munduan sartzeak hizkuntzak

beste erabilera batzuk ere badituela eta horretan trebatu behar duela erakusten dio haurrari.

Ahots arazoak urtetik urtera nabarmenagoak dira: haur, gaztetxo, irakasle, guraso, koadrilako lagun, tabernari, telefonista, dendari... inor ez dago kontu honetatik salbu.

Gaur egun eskolatutako haurren artean %30-40k ahots arazoa duela badakigu. Batzuetan gurasoak dira arazoaz ohar-tzen diren lehenak, baina askotan tutoreak, musikako irakasleak, abesbatzako zuzendariak, pediatriak, foniatriak... dira

haur baten ahotsa garbi ez dagoela entzun eta gurasoei esaten dietenak.

Ahotsaren arazoak eta garrasiak —haurtzaroan bereziki— zuzenki lotuta daude. Ikus dezagun.

Bizitzako lehendabiziko bi urteetan agertzen diren ahots arazoak (bat-bateko afoniak...) larriak badira Osasun zerbitzuek aztertu eta epaitu behar dute, gaixotasunen bat egon baitaiteke atzean. Gisa horretako arazoek gehienetan ez dute zerikusirik ahotsaren erabilerarekin.



Hiru bat urtetik aurrera, aldiz, asko, ozen (garrasika) edo eta azkar hitz egiteagatik —hau da, behartzeagatik—, ahotsak bere "garbitasuna" galtzen du. Hona horren seinaleak: hitz egitean azkeneko silabak ez dira entzuten, arnasaren kontrola galdu egiten da eta esaldiak moztzen dira behar ez den tokian, eztarria nekatzen da... Gainera, ipuinak kontatzerakoan ezin dira pertsonaia desberdinak imitatu eta testuaren erdia —eta horrekin batera ulermena— galdu egiten da, abesteko arazoak sortzen dira, alegia, "goiko" notak ezin dira eman, zailtasuna dago baxu abesteko... Besterik ere bada, ordea: momentu batetik aurrera badirudi haurrak beti "katarroa" duela, ozen ez bada ez zaio ahotsa ateratzen, ez daki "baxu" hitz egiten... Eta, azkenean, hain ezagunak zaizkigun "nodulu" eta antzekoak sortzen dira.

Gaur egungo giroak ez du batere laguntzen; egia da: zarataz inguraturik bizi gara, isiltasunak ez du tokirik. Errepara diezaiozun instant batean ondokoari: Telebista ikusi eta entzuten diren haurrentzako eginiko programak ez dira batere egokiak alde honetatik; eskolan ere askotan irakasleak berak izaten du aho-tsean arazoa eta horixe da haur ikasleak bereganatzen duen eredu; hitz egiteko txandak ez dira errespetatzen; etxean ere askotan

ozenegi hitz egiten dugu; zenbait gurasok ere ez dakite bere haurren ahots "normalak" nolakoa izan beharko lukeen...

Baina, guztiarekin ere, gorputzaren eta adimenaren osasunari bezalaxe, ahotsarenari ere duen garrantzia eman beharko genioke, gauza asko baitago atzean eta jokoan. Denon artean ahalegindu beharko genuke ohitura egokiak berreskuratu eta erabiltzen: eskolan, etxean, abesbatzan, kirola egiten dugunean, jolasean... haurrei eredu onak ematen eta isiltasunari ere tarteaz uzten.

Eta, nolanahi dela ere, ahotsa hondatzen hasia dela iruditzen bazaigu, jakin dezagun gaur egun Osasun zerbitzuek arazo horiek diagnostikatu eta bideratzeko aukera ematen digutela.

Ahots garbi eta osasuntsua izatea denon zeregina da; saia gaitezen bada: benetan merezi du.



Mirari Pérez Gaztelu (Sendagile-foniatra)



HERRIKO APAIZARI ELKARIZKETA



Boni Urkizu Oiartzungo apaiza dugu. Apaizetxean, Legarreko maldan, bizi da beste apaiz batzuekin batera.

Zenbat urte daramazu apaizgintzan?

44 urte apaizgintzan.

Noiz sentitu zenuen edo zerk erakarri zintuen apaiz izatera?

Ni oso txikitandik joaten nintzen seminaria, hamaika urterekin. Zuek baino gazteagoa nintzen. Orduan betidanik pentsatu izan dut seminaria joatea eta apaiz izatea.

Zer sentitzen duzu meza ematerakoan?

Bi gauza: Herriarekin nagoela eta herri hori Jaungoikoarekin harremanetan jartzeko tartean nagoela.

Hanka sartzeren bat egin al duzu noizbait elizkizunetan?

Bai, baina ez oso handiak.

Zer nolako adiera ikusten da normalki mezetan? Eta zuk, hori ikusita, zer sentitzen duzu?

Batzuei ez zaiela axola zer esaten dudan.

Jendea aitortzera joaten zaizunean, kontatzen dizkizun gauzeekin zer sentitzen duzu?

Orain ez dira gauzak aitortzera etortzen. Lehen bai, baina orain ez eta orduan ez dut ezer sentitzen.

Badirudi, orain, gero eta pertsona gutxiago joaten dela elizkizunetara? Zuk zer diozu? Zergatik ote da?

Arrazoi askorengatik. Jendeak beste modu batera pentsatzen du. Eliza ziur asko gaurko jendearentzat behar bezain eguneratua dago. MARILLO: seguru hori esan zuela?

Gaur egungo gazteei ez zaie mezetara joatea gustatzen. Zuk zer uste duzu? Zer egin behar-ko litzateke?

Ez dakit erantzuna. Zaila iruditzen zait erantzun hori eman ahal izatea. Nire ustez, lehen esan dudan bezala, ez zaie iruditzen beharrezkoa elizkizunetara etortzea.

Zer duzu nahiago: Ogia ala ardoa

Nik ez dut ardorik edaten, beraz ogia nahiago dut.

Mendia ala itsasoa

Itsasoa, itsas bazterrekoa naizelako.

Haragia ala arraina

Haragia.

Babarrunak ala pizza

Babarrunak, pizza ez da txarra, ona baldin bada.

Baratxuria ala tipula

Tipula.

Musika lasaia ala herrikoia

Herrikoia.

Rock-a ala bakalau dantza?

Ez dakit dantzatzen eta bakalaua zer den ere ez dakit. Beno badakit badela, baina ez dakit nola dantzatzen den.

*Irene Barrenetxea
Izar Makuso
Ainhora Gomez*



Izaskun Cruz

Gure helburua da jakitea haurdun dagoen emakume bat nola sentiarazten duen ume bat tripan edukitzeak. Gure protagonista Izaskun Cruz da. Oiartzunen jaio zen eta lehenengo alaba da. Ezkondu zenetik Gurutzen bizi da.



Nolako esperientzia izan duzu?

Oso ona. Haurdunaldian ez dut arazorik izan.

Zer sentitzen da medikuak haurdun zaudela esaten dizunean?

Poz handia.

Nola sentituko zara ama izatean?

Oso pozik!!!

Zenbat ume izan nahi zenituzke?

Hiru ume, neska iritsi arte.

Umea barruan dagoenean zein aholku mota bete behar dituzu?

Ez erre, ibili gehiegi nekatu gabe...

Kirolen bat egin behar al da haurdunaldian?

Ez da derrigorrezkoa.

Zer jan behar da gehiago: barazkiak ala haragia?

Barazkiak eta denetarik.

Zenbat kilo igo dituzu?

Bederatzi kilo.

Gutxi gorabehera, zein taila erabiltzen duzu orain?

46. Igo egin naiz.

Esertzerakoan, traba egiten al dizu tripak?

Ez.

Tripa handitzen doan onean mina hartzen al duzu?

Batere ez.

Zenbat hilabeterekin jakin duzu zein sexua duen umeak?

Lau hilabeterekin.

Zein izen jarri behar diozu?

Asier.

Zuk magia egiteko gaitasuna bazenu, mundu honetatik zer desagerraraziko zenuke?

Gerra.

Zein da sarritan egiten duzun ametsik gozo-ena?

Asier handitu dela eta zoriontsu bizi dela.

Zer duzu nahiago?

Piztina ala hondartza: Piztina

Mendia ala Bidegorria:

Mendia

Musika klasikoa ala Rock and roll-a:

Rock and roll-a

Pizzeria ala jatetxea:

Jatetxea

Olaizolako janaria ala etxekoa:

Etxekoa

Umea eramateko karroa ala aulkia:

Aulkia

Gonak edo galtzak:

Galtzak

**Leire Etxepeteleku
Irati Perez**



HERRI KIROLAK




DBH 1. eta 4. mailan ohiko bihurtu den topaketa dugu herri kirolena.


DBH 4. mailakoeak Erreterian izan zuten lehen saioa, martxoaren 27an eta Donostian irabazleekin egiten den ekitaldirako sailkatu ziren. Bigarren hau apirilaren 4an izan zen.


Zenbaitetan, ez da erraza adin honetako gaztetxoak, DBH 4. mailakoak, gure kiroleetan parte hartze-
ra bultzatzea, baina aurtan, ikasleen jarrera eta gogoak ezin hobeak izan dira, baita hala nabaritu ere,
kontuan hartuz gero lortutako emaitza.

DBH Ieko ikasleek Lezon izan zuten lehen saioa, maiatzaren 29an, eta hemen irabazi ondoren, Laz-
kaon egindako topaketan aritu ziren.



Topaketa hauen helburua Euskal Herriko joko eta kirolak ezagutzera ematea eta festa giroa bultzatzea da. Eta helbu-
ru hau bete-betean lortu zen. Giro apartan lehiatu ziren
ikasleak, kiroltasunari garrantzia emanaz. Amaieran Haur-
tzaroko ikasleek 3. saria lortu zuten; egun on bati amaiera
ona eman zioten, beraz.





X A R E G I L E A K

Gorputza eta Kirola tailerraren barruan aipamen berezia egin nahi dut martxan jarri dugun xare tailerrean.

Irurako Jesus Mari Arsuaga xaregileari esker, eta berak erakutsitakoa jarraituz lortu dugu, Euskal Herrian ia galdurik dagoen langintza berreskuratzea, gure artean behintzat.

Gogo handiz eta gustuz hartu dute eskulan hau eta lortutako emaitzak ere onak izan dira.

Egurra jaso, garbitu, okertu,eta sokak korapilatuz lortu dugu "joko handia" ematen duen tresna, gurea den tresna.



4. MAILAKOAK

ANTTON KAZABONEKIN SOLASEAN

Anttonekin ordua motx-motxa egin zitzai-gun. Iritsi orduko bertso bat asmatu eta jarri zigun arbelean.

Ondoren "Etxola txuriko izpiritua" izenburutzat duen ipuina aztertu genuen. Guk galdarak egin ahala berak erantzuten zizkigun. Interesgarria egin zitzaigun. Gaia, Bertso Elkarteko Jexus Muruarekin autoan zihoala bururatu omen zitzaion. Izenburua berriz, Joserra Gartzia aholkatu zion ipuina orraztu ondoren.

Baina hau ez zen dena izan. Jarraian olerki sorta bat irakurri zigun. Polita iruditu zitzaigun.

Bertso-jokuak ere egin genituen berarekin: oin bezala gure izenak hartuaz adibidez.

Eta bukatzeko hitz-jokoak egin zizkigun, trabatzen zena kanporatuz. A ze pena amaitu beharra. Gustura jarraituko genuen jolasean.

Baina Antton, badakigu zer egin. Labean dituzun 3-4 liburu horietatik gutxienez bat irakurri dugu uda honetan eta berriro ere deitu egingo dizugu.

ERKI PASTU GENUEN ZUREKIN ANTTON



4. maila



NIRE AITAREN DESKRIPTIONA IRAKURRI ONDOREN IA NOR NAIZEN ASMATZEN DUZUEN:

Montxo da bere izena. Berrogeita zortzi urte ditu. Ataunen jaio zen baina orain Oiartzunen bizi da. Antzerkiko irakaslea da.

Santa Klaussek baino bizar handiagoa du, begi marroiak, sudur handia, ile beltza, aho handia, belarriak erdipurdikoak eta morenoa da.


Gorputzean ile asko du, beso handiak eta sendoak. Hanka onak eta luzeak, korri egiteko aproposak.

Batzuetan irribarretsu egoten da, bestetan oso haserre, horrelakoetan buruan adarrak dituela dirudi, baina gehienetan pozik dago.

Gustuko duena mendian ibiltzea, bizikletan ibiltzea, eskiatzea eta lo egitea da.

NOR NAIZ?

.....



JAVIER



Javier da bere izena. Berrogeita bi urte ditu. Logroño ondoko herri txiki batean jaio zen. Pasaiko portuan egiten du lan, eta makina bateko gidaria da.

Buruan ileak ditu, aurreko aldean ez ditu. Atzean eta aldeetan ilea du. Ilearen azpian begiak ditu eta begien kolorea urdina da, zerua bezalakoa. Begien azpian sudurra du eta bi zulo ditu, kobazuloak bezain handiak, eta sudurra denak bezala. Sudurraren azpian ahoa du eta oso handia da.

Gorputzean bular handia du. Hankak jirafa batek bezain handiak.

Izaeraz malatetxe askokoa da.

Kotxean ibiltzea asko gustatzen zaio eta Errealak Liga irabaztea gustatuko litzaioke.

Bere afizioa Errealaren partidak telebistatik ikustea da.

NOR NAIZ?

.....



NIRE AITAREN DESKRIPTIONA IRAKURRI ONDOREN IA NOR NAIZEN ASMATZEN DUZUEN:

Antton deitzen diote Aranoko mutil bihurrienari eta bera, gaztetan, Aranon bizi zen baina orain Oiartzunen bizi da. Eta amak Jon deitzen dio eta asko gustatzen zaio Jon deitzea. Nire aitak hogeita hamazazpi urte ditu eta zerbeza fabrian egiten du lan.


Pilota bat bezala dauka burua, burua ez du hain kaskasoila. Begien kolorea berdea da. Sudurra pixka bat okerra du. Ahoa zabala. Eta bizarra du, gehienetan moztu egiten du. Belarriak, ez txikiak ezta handiak ere, normalak dira.

Lepoa ez du luzea, motza baizik. Eskuak luzeak ditu. Hankak ere bai. Eta gorputza ilez beteta dauka eta azalaren kolorea beltzarana da.

Oso umoretsua da, baina malatetxe handia dauka. Umezalea da eta asko gustatzen zaio bromak egitea.

Mendia asko gustatzen zaio eta animaliak, zer esanik ez, oso animaliazalea da.

NOR NAIZ?



.....

.....



Juan Luis da bere izena. Berrogeita bat urte dituela uste dut. Ugaldetxoko Arane izeneko baserrian jaio zen. Baserrian egiten du lan.

Ilea oso lisoa du eta ilearen kolorea beltz-grisa da. Begiak marroi kolorekoak dira, begiaren azpian sudurra eta ahoa dauzka, lodia eta arrosa. Bizar pixka bat dauka.

Gorputzez zabala da eta luzea ere bai.

Siesta egitea gustatzen zaio, pilotan ibiltzea ere bai, nire anaiari eta niri muxu ematea gustatzen zaio, mimosoa da.

Nonbaitera joan behar badu, beste bati uzten dio lana, eta beste baserritara ere laguntzera joaten da.

NOR NAIZ?

.....



LABURPEN TENTATZAILEA

XOLAK BADU LEHOIEN BERRI

1-IZENBURUA: XOLAK BADU LEHOIEN BERRI

2-IDAZLEA: BERNARDO ATXAGA

3-ARGITALETXEA: ELKAR


Egun batean, Grogro jaunaren lagun bat, Grogoren etxera joan zen. Laguna oihanean egon zen eta bidaiari buruz hitz egin zuten. Gero joan egin ziren biak. Lagunak eta Grogok lehoietaz hitz egin zuten. Xolak dena entzun zuen eta lehoia izan nahi zuen. Gero joan zirenean lagunak sofán liburu bat ahaztu zuen. Xolak hartu egin zuen eta irakurtzen hasi zen. Lehoietaz zihoan liburua. Grogro jauna etorri zenean, ea liburua ikusi zuen galdetu zion Xolari. Xolak ezetz esan zion...



Anima zaitez tronk@



VALDEREJO PARKE NATURALA



Valderejo 1992. urtean izendatu zuten parke naturala bi helburu garbirekin: Ingurunearen mantenua eta Lahoz eta Lastrata herrien errekupeatzea.

Valderejo, kare-harrizko horma zuriz inguratutako, biribil-erdi itxurako haran berdea da. Zola larre-leku eta soroz jantzirik dago eta haien artetik Puro ibaiak doa Iparretik Hegora. Hemengo giroa bi muturrak ukitzen ditu: uda beroa eta udazkena bat-bateko beherakadekin. Urtarorik euritsuena negua da eta elurra ere sarritan egiten du.

NOLA HELDU BERIBILEZ

Bilbo eta Ipar alde guztitik, biderik zuzenena N-625 errepeidea da.

Gasteiz, Donostia eta eguzki aldetik etorrita, N-1 errepeidea Oka-Langraizko bidegurutzeraino da biderik laburrena. Pobes, Añanako Gatzaga eta Espejo herriak igarotzen dituen bailara-errepide honi jarraiki, N-625eko gurutzerara helduko gara.

Miranda eta haren ingurutik hiri hau Puentelarrarekin batzen duen bailara-errepide hartuko dugu, N-625eko gurutzeraino heldu arte.

N-625 errepidetik, Villanañe ingurutik, Valdegobia San Millan de San Zadornileraino (Burgos) igarotzen duen bailara-errepide hartu behar da. Hemendik abiatzen da Lalastrara doan auzo-errepide eta herri honetan dago Valderejoko Izadi Babesgune harrera etxea.


Horko lau herriak, Valdegobiako Udalaren barruan daude 1967az geroztik. Hauetatik bi, Ribera eta Villamardones, lur jota daude gaur egun, herritarrek herritik alde egin zutelako. Egoerari aurre egin dieten baserritar gutxi, Lahoz eta Lalastran bizi dira. Herri biok labore kontuan, "burda" deritzan ardi, haragitako abere larri eta erlegintza lanetan aritzen dira.

Valderejoko Izadi Babesguneak gaur egun duen itxura, bere bizilagunek eta ingurumenak milaka urtez elkarri eragin izanaren ondorio da. Orain, hura zaintzea denon ardura dugu.

BERTAN EGIN DAITEKEEN TXANGO BAT: PURON IBAIAREN HAIZPITARTEA

Parke barrenean anitz txango egiteko aukera dago. Guk aukeratu duguna Puro ibaiaren haizpitar-tekoa da.

- Iraupena: 4 ordu joan-etorria
- Ibilaldia: 10 Km
- Zailtasuna: Txikia.
- Urtaro egokiena: Udaberria eta udazkena
- Ibilaldi hau Ribera herri utziaren irteeran hasten da eta behar bezala adierazita dago.



Guk ere
OPORRAK

**Urtero bezala, uztailarekin batera,
iraila bitarte agurtzeko tenorea
ailegatu zaigu**

*Ale honetan, Okastola, Partzuergo eta
Oiartzoko guraso, ikasle eta langile
guztiei bihotz-bihotzetik opor onak opa
dizkizuegu*

Xanistebanetan herrian gelditzen
zaretenei edota kanpora joan behar
duzuenei, ongi pasatu eta ez ahaztu
irailean berriro ere zita izanen duzuela
ikastolarekin

Ongi pasa eta laster arte

**Lupe Mendigutxia
ZUZENDARIA**

Argitarapen honen edizioak laguntzaileak

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



"la Caixa"

"Oiertzuarren
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



ETXE ONENAK, S.A.

Bizitegi Sustapena

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipúzcoa 2-3^o dcha. • 20004 Donostia • ☎ 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



Biok ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3. • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



Hotel LINTZIRIN s.a.



☎ 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04

CTRA. MADRID - IRUN Km. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es
OIARTZUN - GIPUZKOA

TAJO Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Poligono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250

Alcampo

OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



A M E N A B A R

AENOR



Empresa
Registrada
ER-424/296

SEAT

Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 - 943 26 03 91

Carrefour



OIARTZUN

MERKATARITZA ZENTRUA

X
A
B
I
E
R



A
S
K
A
T
U

Egunkaria aurrera!